

# Aberri Eguna 2010

## **ELAko Nazio Batzordearen ebazpena**

*2010eko martxoaren 22a*

# 2010eko Aberri Eguna

## ELAko Nazio Batzordearen ebazpena

2010eko martxoaren 22a

**[XEDEA]** Nazio Batzordeak, aurreko urteetan egin duen moduan, Aberri Eguna baliatu nahi du sindikatuaren oinarri sozialari helarazteko gizartean eta politikan bizi den uneaz egiten duen gogoeta.

**[KRISIA]** Aldarrikapen nazionala herri batek parteka ditzakeen kontuekin lotuta dago, baina egun oraindik ere krisi bat jasaten ari gara, eta krisi hori bete-betean gizartearen zati batek bakarrik pairatzen du ia, langile-klaseak. Joan den urteko maiatzean euskal gehiengo sindikalak greba orokorrera deitu zuen, politika publikoak aldatzea premiazkoa zela plazaratzeko, politika horien norabidea aldatzeko, enplegua sortzera eta langileen gizarte-babesa hobetzera bidera zitezen. Ia urtebete igarota, iragarpenik okerrenak bete egin dira. Batetik, patronalak krisia eta langile askoren beldurra profitatzen du urtetako borroka sindikalaren lorpenak deuseztatzeko, joko-arauak hausteko eta askatasun sindikalari ere erasotzeko. Bestetik, ideologia neoliberalak da euskal erakundeen politika publikoen iparra, agintzen duen indar politikoa edozein dela ere. Azkenik, estatuan, botere politiko eta ekonomikoek murrizte politikak ezartzea erabaki dute, hots, eskuineko politikak, banketxeen eta enpresaburuen onerako. Horrenbestez, iragarri dituzten erreformek (pentsioen sisteman, lan-merkatuan eta negoziazio kolektiboan), zeinak estatuko bi sindikatu nagusiek babesten dituzten, langile-klasea oso egoera kaltegarrian kokatuko dute. Bien bitartean, ez da ekonomia eta finantzetako botereen aurkako inongo erabakirik hartu.

**[EUSKAL ESPARRUA]** Hartara, are nabarmenagoa da gure herriko erakundeek gai laboral, sozial eta sindikaletan legeak egiteko duten ezina, gaiok oraindik estatuaren esku baitaude. Baina bitarteko ekonomiko eta finantzarioak ere faltan ditugu. Gabezia hauek euskal herritarren artean orokorra den autogobernu nahiaren kontrakoak dira, eta are okerragoa dena, eztabaida soziala esku-hartzeko gure esparrutik urruntzen dute; ondorioz, egoera hain larria denean bertoko indar politiko nagusiek ez daukate posizio politikorik hartu beharrik ere. Gainera, gaurko EAEko gobernuak, estatua uniformatzeko eratu zen horrek, gehiengo sindikala hainbat parte hartze organotatik baztertzea erabaki du, espainiar patronal eta sindikatuekin elkar hartuta. Honi gehituz gero goian aipatutako erreformek gure herrian gutxiengo diren sindikatuaren oniritzia izango dutela, logikoa da nazio burujabe eta independente bat eraikitzeo nahia gero eta zabalagoa izatea ELAk ordezkatzan dituen langileen artean.

**[SINDIKALISMOA]** ELAk lanean dihardu, horretan sinesten baitu, herriaren antolakuntza soziala eta identitate nazionala bera justizia sozialaren eta elkartasunaren inguruko baliotan taxutu daitezten. Hori da bere bokazioa eta askapen nazionalako prozesuan egin dezakeen ekarpenik bereziarena. Sindikatuak bokazio eta ekarpen hori berritu eta areagotu egin nahi ditu. Langile-klasea botere politiko eta ekonomikoaren aldetik jasaten ari den eraso ikusirik, eta espainiar sindikalismoak elkarriketa sozialaren esparruan estatuaren helburu politiko eta sozialak txertatu nahi dituela jakinik –finantzatzearen truke, eta are besteen ordezkaritza usurpatuz–, ELAk uste du krisia eta beronen eraginei aurre egiteko borroka izan behar dela bere ekintza sindikal, sozial eta politikoaren lehen esparrua.

**[ESKER ONA]** Nazio Batzordeak, beraz, esker ona adierazi nahi die ELAko militanteei, era apal baina irmoan krisi egoerari erantzun eredugarria ematen ari baitira, lantoki bakoitzean borroka sindikala eta elkartasuna oso baldintza zailetan antolatuz, ugazaben mehatxu eta xantaiapean. Militanteok ematen digute gure herriarentzako aurrerapide eta askatasun etorkizun baterako itzaropena.

**[URGENTZIA DEMOKRATIKOAK]** Borroka nazionalaren ikuspegi estrategikoa ahaztu gabe, emantzipazio beterako prozesuak lehenik aldarrikapen eta lehia politikoan urrats askoz ere apalagoak egin behar ditu. Espainiar estatuaren tradizio demokratiko eskasak eragiten dituen kalte ugariak –gure herrierekiko salbuespen egoera dakartenak– euskal indar demokratikoei orain bertatik hasita ekin beharreko beste hainbat borrokatarako deia egiten digute. Estatu-arrazoiari aurre egitea premiazkoa da.

**[GIZA-ESKUBIDEAK]** Estatu-arrazoi horrekin lotuta, lehenik politika errepresiboek eta giza-eskubideak urratzen dituzten erabakiek eragindako hamaika arazoak ditugu: espetxe-politika ankerraren iraupena (sakabanatzea, gaixo dauden presoak, bizi arteko zigorrak, senideen miaketak...); tratu txar eta tortura kasuak, are ezkutuago geratzen direnak estatu demokratiko bati ez dagokion legeria antiterroristaren ondorioz; pertsonen bahiketa *expressak*; tipo penal lausoan aitzakian gizarteko sektore osoen kontrako makroauziak... Horrekin batera, Jon Anzaren desagerpen eta heriotzaz ezagutzen ari denak gerra zikinaren garaiko unerik beltzenak gogora arazten dizkigu.

**[PROZEDURA DEMOKRATIKOAK]** Bigarrenik, esparru legegile, judizial eta exekutiboan errespetatzen ez diren funtsezko printzipio demokratikoak aipatu behar dira. Hainbat adibide dago: legetik kanporatua izan den ezker abertzalea aurrerantzean ere instituzioetatik eta hauteskundeetatik parterik ez hartzeko Gobernu espainiarrak azalduko lege erreformak; eskuin muturreko erakundeek bultzatuko hamaika auzibide; jarduera politikoa besterik leporatzen ez zaien herritarren atxiloketa... Horrekin batera, PSE-EEK Lehendakaritza lortu izana, PPren babesarekin, euskal gizartearen zati bat hauteskundeetatik baztertuta osatu den gehiengo parlamentario bati esker; hori guztia ia pentsaezina litzateke inguruko sistema demokratikoetan. Demokrazia horrela urratzeak badu, noski, helburu bat: estatuaren unformatze prozesua burutzea. Hain zuzen, salatu beharra dago ere gobernu berriak Ertzaintza edota EITB nola erabiltzen dituen.

**[KULTURA]** Hirugarrenik, salatu nahi ditugu estatuetakoa eta bi autonomietako gobernuak hezkuntza, hizkuntza eta kulturaren inguruan erabakitzen dituzten politikak. Beren abertzaletasun konstituzional sanoaz harro agertzen direnek auzi etnolinguistikoa politikaren ardatz nagusi bihurtu dute, azken hamarkadetakoa bidean atzera egiteko asmotan. Beren politikak helburu bakarra du, eta aintzat hartzen du Romanones konteak bere garaian bota zuen oharra: “pueblo que su lengua cobra, su independencia recobra” (“hizkuntza irabazten duen herriak bere independentzia berreskuratzen du”). Hortaz, egungo egoeran berriro agerian geratzen da herri honen gehiengoak oinarritzeko gaien inguruan akordioak lehenbailehen iritsi behar dituela: euskaraz bizi eta eskolaratzea nola bermatu, edota gure herriaren izena erabiltzeko eskubidea, antzinako ‘Euskal Herria’ terminoa mutilatu egin nahi baitute.

**[AUTODETERMINAZIOA]** Laugarrenik, ospakizun honen aurrean nabarmendu behar dugu gure herrian jende asko bat datorrela kontu batean: autogobernu maila handiagoa lortu beharra eta berme demokratikozko sistema bat lortzea, non proiektu politiko oro posible izango den. Autodeterminazio eskubidea ez dute espainolistei onartzen, eskubide demokratikoa izanagatik, eta gauzak aldatu nahi ditugunok horren aldeko lana latz egin beharko dugu. Eskubide honen eta oro har autogobernuaren

aldarrikapena izan beharko litzateke, berehalakoan, estatuari aurre egiteko oinarria, eta berau gure herriko indar demokratiko guztiek partekatu beharko lukete.

**[MINIMOEI BURUZKO AKORDIOA]** ELAk badaki aldarrikapen nazional eta politiko batzuk lortzeko dinamika uztartu egin behar dela erakunde politikoen alderdi- eta hauteskunde-helburuekin. Baina badaki, halaber, hainbat oinarrizko gaitan (giza-eskubideak, demokrazia, euskara, erabakitzeko eskubidea) minimo batzuk adostu beharko liratekeela, ezarri nahi diguten estatu-arrazoi horri aurre egiteko. Minimo edo gutxieneko horiek, gaur finkatu gabe daudenak, blindatuta egon beharko lukete, erabaki librez bat datozenek lan sozial eta politikoan konpromisoa hartu dutela bermatzeko. Horixe da, gure ustez, subiranistentzako erronka gaur egun. Behartuko gaituzten gutxieneko batzuk behar ditugu. Eta erronka hori ezin da nahastu, ez da nahastu behar, zilegizkoa den hauteskunde-esparruak lortzeko lehiarekin.

**[ALIAINTZAK]** Hartara, aliantzak eratzerakoan kideen artean ezinbestekoa da indarrak bat egiteko borondatea, eta ez baztertzekoa; aniztasuna bilatzeko zinezko ahalegina egin behar da. Horrekin batera, iraganeko jokabideak atzera utzi behar dira: erakundeak desegitea izan ohi zen asmoa, eta ez hainbeste erakunde horietako solaskide errealei dagokien indarra aitortu eta begirunez jokatzea. Halaber, sarri aipatu izan dugu eredugarriak direla Euskal Herriko Laborantza Ganbara edota Batera plataformaren borrokak. Eta oraintsu nabarmentzeko modukoak izan dira Iparraldeko herriko etxe askotan egin diren kontsultak, instituzionalizazioari buruzkoak.

**[BIDE ZIBILAK]** Azkenik, metodo zibilak izango dira borroka horiek gizartean legitimatzeko biderik egokiena. Hain zuzen, ELAk begi onez ikusten ditu legez kanpo dagoen ezker abertzaleak egindako eztabaidaren konklusioak. Erakunde bakoitzaren legitimazioa nola azaltzen den juzkurik egin gabe –dena dela, hori bere buruarekiko egitea zilegi da– bide zibilen aldeko alde bakarreko hautuak gure herrian itxaropena piztu du. Hau da oraingo erronkei aurre egiteko modurik egokiena, jakinik estatuak era neurrigabe, bortitz eta antidemokratikoan jokatzen duela, eta nazioarteko babes handia duela ‘euskal auzia’ delakoa nahierara gobernatzeko. Nolanahi ere, berriro eskatzen diogu ETari bortizkeriari behin betiko uko egin diezaiola eta bertan behera utz dezala berehala hainbeste herrikideren kontrako mehatxua.

**[DEIA]** Nazio Batzordeak dei egiten die euskal langileei ELAren sindikalismo abertzalera hurbildu eta militante izan daitezen: sindikalismo autonomoa, politika eta finantzei dagokienean; aldarrikapenezko sindikalismoa, eta Euskal Herrian lan egiten duen ororen askapen nazional eta klasekoa bilatzen duena, langilearen identitate nazionala, kultura, hizkuntza, erlijioa, adina edota sexu-aukera edozein dela ere.

Gora euskal langileria!

Gora Euskal Herria askatuta!